

Euskal hezkuntza ikastolak sortu baino lehen: Amerikako euskal ikastetxeak, egitasmoen eta errealitatearen artean (XVIII-XX)

Oskar Alvarez Gila
Oxfordeko Unibertsitatea

Euskal emigranteek errotu ziren eskualdeetan mota askotako erakundeak sortu zituzten. Horien artean ezagunenak, dudarik gabe, egun «euskal etxeak» izenarekin ezagutzen diren elkarteak dira, elkarri laguntzeko eta folklorea sustatzeko ekintzak biltzen dituztenak. Baina horiez gain, baziren ere hain ezagunak ez diren beste instituzio batzuk. Hezkuntza, orobat, euskal emigranteek sorturiko erakundeen helburuen artean bazegoen. XVIII. mendetik aurrera, hainbat egitasmo burutu ziren Ameriketara, euskal ikastetxeak sortzeko asmoarekin; beraietan, hezkuntza praktikoaz gain, euskal kulturari eta hizkuntzari ere txoko garrantzitsua utzi zitzaion.

GAKO-HITZAK: Emigrazioa · Hezkuntzaren historia · Euskara · Amerika.

Basque emigrants were able to create so many different types of institutions in the countries and regions they settled. The most known of them are, without any doubt, the kind of institution usually named as “euskal etxeak” or “Basque clubs”, in which they are usually merged objectives of mutual aid and folklore. Nonetheless, there are also other kind of less known institutions implemented by emigrants. We will focus in these centered upon providing education to the descendents of Basque emigrants, of which we can find several examples from the late 17th century on. This “Basque colleges”, besides providing practical and useful knowledge for the kids, were also used to transmit the Basque culture and language.

KEY WORDS: Emigration · History of Education · Basque language · America.

Jasotze-data: 2009-04-15. *Onartze-data:* 2009-04-22.

1. Hezkuntza eta emigrazioa¹

Azken hamarkada honetako ekoizpen historiografikoak erakutsi duen moduan, Ameriketarako euskal emigrazioa fenomeno poliedrikoa dela esan daiteke zalantzarik gabe. Gai honen hastapeneko hausnarketak, zeintzuen arabera emigrazioa arazo demografiko soila baitzen, aspaldiko bidean geratu ziren, perspektiba berriei tokia utziz —eta mintegi honen hitzaldien edukia horren froga garbietako bat da—. Euskaldunen emigrazioaren zergatientzat oraindik erantzun argi eta erabat adosturik aurkitu ez badugu ere, horren ondorio historikoak aztertzeari ekin diogu ikerketa-munduan, batez ere Ipar eta Hego Ameriketara Europako emigrazio masiboa hartu eta onartu zuten nazioetan sortutako euskal kolektibitateen izaera eta nondik norakoak.

Izan ere, duela asko itsasoz haranzko emigrazio-korrontea agortu arren, oraindik toki askotan euskal-amerikar nortasun edo identitate bereziak mantentzen dira, Argentinan, Uruguain, Venezuelan, Txilen, Mexikon, Estatu Batuetan, eta abarretan. Gehienetan identitate hauek bigarren, hirugarren edo *n*-garren belaunaldietako ondorengoek gorde eta eraldatu dituzte, jatorrizko euskal ezaugarri kulturalak nazio hauetako bakoitzean euskal kolektibitateak bizi izan dituen berezko gertaera historikoen galbahetik pasatuz, baina oraindik edozein euskaldunek beraietan euskaltasunaren kutsu ukalezina ezagutu ahal du². Euskal nortasun hauen jarraitutasun eta iraupenaren lekukoak —eta bide batez bultzatzaile eta bideratzaileak— XIX. mendearen azken laurdenetik aurrera Amerikako hainbat naziotan jaiotako euskal instituzioak ditugu, «instituzio» hitzari ahalik eta esanahirik zabalena emanik: azken hamarkadetak historiografian *euskal etxeak* (gaztelaniaz *centros vascos*, ingelesez *basque clubs*) izenarekin ezagutzen diren elkar-teez gain, egunkari eta aldizkariak, euskal alderdi politikoen eta gobernu-erakundeen ordezkariak, kirol-guneak eta elkarteak, argitaletxeak, esparru ekonomiko ia guztietako enpresak, kultura-arloko ekimenak, jatetxeak, hotelak eta abar, sortu, bizi, eten, birjaio eta desagertu ziren Ameriketara euskal emigrazioaren loraldian zehar, eta horietako asko, gainera, salbuespenak salbuespen, XXI. mendeko lehenengo urte hauetara arte ere ailegatu zaizkigu³.

Aurrekoarekin loturik, euskal emigrazioaren eta kanpoko euskal kolektibitate eta instituzio hauen historia aztertu eta idaztean, ikuspegi eta arlo tematikoak asko zabaltzen direla antzematen da. Horrela, emigrazioa —ikerketa-esparru bezala—

1. Artikulu hau Euskal Herriko Unibertsitateko *Imagen e imágenes de la emigración vasca a América: identidad e imaginario colectivo (1835-2002)* ikerketa-proiektuaren barnean kokatzen da (1/UPV 00156.130-H-15310/2003).

2. Azken urteotan kanpoko euskal kolektibitateetan egoera berri honen erronkari aurre egiteko euskaltasunaren definizio zabalagoak gauzatzen ari dira, jatorri euskalduneko amerikarren herentzia kultural berezietan oinarrituta. Besteak beste, ikusi Auza, 2004: «Del mismo modo que a través de los siglos lo vasco se enriqueció y se recreó continuamente con los aportes de otros pueblos vecinos o no, hoy en día el ser vasco cobra nuevas formas a través de la multiplicación y recreación de los vascos con guión (vasco-argentinos, vasco-chilenos, vasco-uruguayos, vasco-australianos, vasco-estadounidenses)».

3. Egia da, noski, euskal emigrazioen azken olatuek indarra galdu zutenetik aurrera, erakunde eta ekintza hauetako askok bizirik iraun dutela eta, zenbait kasutan, berriak ere agertu direla. Hala ere, hauen guztien esanahiak eta funtzioek eraldatuak izan behar dute, gaur eguneko euskal kolektibitateak gehienbat emigranteen ondorengoek osatzen baitituzte.

Euskal Herriko historiografiaren praktikan dagoeneko oso erroturik zeuden beste hainbat arloekin hasi da erlazionatzen, intersekzio-gune emankorrak sorraraziz: hor ditugu, besteak beste, emigrazioaren eta politikaren arteko harremanak (esaterako, euskal lurraldeetako agintari eta gobernu-erakundeen migrazio-politikak, edo Amerikan zehar Euskal Herriko ideologia politikoen zabalkundea, besteak beste karlismoa edo abertzaletasuna, edo erbestearen partaidetza diktadura garaiko ideologia galarazien sostenguan); emigrazioa eta kultura (adibidez: euskarazko literatura emigrazioan edo erbestean, emigrazioa bertsolaritzan, euskal artearen eta artegileen presentzia Amerikan), eta abar⁴.

1.1. Ikuspegi historiografikoak

Hezkuntzak ere, azaletik horrela ematen ez badu ere, baditu alabaina oso harreman estu eta sakonak emigrazioarekin. Harremanok, gainera, mota askotakoak izan daitezke, hots, ikerketetan modu anitzetatik ikus ditzakegu —eta ikusiak izan dira—.

1.- Ikuspegi hauetako lehena, *migratzailearen beraren hezkuntza mailaren ebaluaziotik* igarotzen da. Aspaldiko eztabaida batean, antropologoak, soziologoak eta historialariak etorkinen lanbide-integrazioak eta espezializazioak nola bilakatzen diren argitzen saiatu dira: oro har, kanpotik etorritako taldeek harrerako gizarteetan oso lanbide-esparru mugatu eta definitu batean espezializatzeko joera erakusten dute. Euskaldunak, esaterako, Estatu Batuetan artalde handien artzaintzan aritu dira batik bat. Argentinan, aldiz, esne-industria *de facto* euskal etorkinen monopolioa izan zen XX. mendearen azken laurdenetik XX. mendearen azken herenera arte.

W. Douglass-ek laburbildu zuen bezala, arazoa galdera soil batean adieraz daiteke: etorkinak lanbide hauetan kokatzen al dira beren sorterritik horretarako prestakuntza ekarri dutelako?, ala alderantziz, etorkinak direlako harrerako gizar-teak lanbide horietara *naturalki* eramaten al ditu?⁵ Erantzun eske, zenbait ikerketatan etorkinaren hezkuntza mailari so egin diote, maila horrek haren migrazio-proiektuaren egitasmo eta desioen gauzatzean nola eta noraino eragiten duen erabakitzeko. Izan ere, inork ez du ukatzen itxaropen oso bestelakoak suposatu behar zizkiela, emigrazioaren abenturan, alfabetatu gabeko baserritar euskaldun elebakar bati eta, adibide bat jartzearen, eskola maila gainditua duen eta erdaraz alfabetizazioa lortu duen beste bati⁶.

2.- Aurrekoarekin loturik, *migratzaile arrakastatsuek beren jaioterrietan sorrarazi eta bultzatu zituzten ikastetxeak* aipatu behar dira.

Euskal Herrian dagoeneko XVI. mendetik aurrera aurki ditzakegu adibideak, eta ez bakarrik Amerika edo *Indietara* joandako migratzaile «berezi»ekin. Azken horien artean euskal lurraldetik kanpora administrazioetako postu gorenen bat betetzera atera zirenak kokatzen ditugu: maila guztietako gobernatzaile eta

4. Honen inguruan, ikusi Aramburu (2002: 13-50) eta Alvarez (?).

5. Hinshaw (1979: 287-303). Ikusi ere Totoricaguena (2003a).

6. Edonola ere, honetan eta emigrazioaren ikerketaren inguruan sor daitezkeen eztabaida guztietan edozein interpretazio mekaniko alboratu behar da.

agintari politikoak, apezpikuak eta Elizaren barruko beste agintaritza-postuetako nagusiak, edo auzitegietako epaileak. Hor dugu, esaterako, 1588an Diego de Ahedok Karrantza haraneko San Miguel de Ahedo bere jaioterrian eskola-mintegi bat fundatzeko utzi zuen dirua, Palermoko apezpikua zenean eman eta sinatu zuen testamentuan (López, 1975: 80-819)⁷. XIX. mendeko Gasteizko Agirre apaiz-gaitegia ere ildo beretik jaio zen (Arrieta, 1992). Baina inizatiba handi eta garesti hauek, nahiz eta ezagunenak eta nabarmenenak izan diren, ez dira ez bakarrak, ezta gehienak ere. Hauekin batera, emigrazio-abiapuntuak izan ziren ia hiri, herri eta herrixka gehienetan beste inizatiba apalago baina ugariagoak metatu ziren. Latinitate-beka bat han, lehen letrak irakasteko eskolatxoak hemen, batzuetan mutilez gain, neskek ere ikas dezaten... XVIII. mendetik aurrera, XX. mendearen bigarren edo hirugarren hamarkadara arte, adibideak nonahi agertzen zaizkigu⁸. Eta ez da hau bakarrik Euskal Herriko kontua; izan ere, inguruko beste eskualde emigratzaileetan antzeko bilakaerak identifikatu dira, horien ondorioz mamitsuenak Galizia eta Asturiaseko hainbat *parrokia* txikitzen eskolak eraiki zituzten *sociedades de instrucción* izeneko elkarteak direlarik⁹.

Esan gabe doa, inizatiba hauen guztien barneko arrazoiak ezagutu nahi izan direnean, egin diren ikerketetan lehendabizikoz eta beti agertu den auzia horien funtzio sinbolikoa izan dela. Nolabait, migratzaileak urrutiko lurralde hartan herrimina galdu ez duela adierazi nahi du; eta bide batez, bere jaioterrian Amerikan lortu duen arrakastaren gizarte-balioa ezagutarazteko esfortzua egiten du. Baina horren ukapena egin gabe, beste balio praktikoago bat ere bilatu ahal zaio. Normalean, migrazioa ez zen pertsona bakar baten kontua, talde batena baizik. Emigrazioa senitarte baten barneko proiektua izaten zenez, joan zirenen eta herrian geratu zirenen arteko harremanak eta elkarrekiko beharrak ez ziren askotan eteten, baizik eta ahal zen neurrian egoera berrira egokitzen saiatzen ziren. Osabak Perun, Argentinan edo Filipinetan arrakasta ekonomikoa lortu eta gizarte-ekalan gora egiten bazuen, logika horrek sorterriko familiako behartuenei laguntzeko eskatzen zion; baina haren ikuspuntutik ere, sendikoen parte-hartze honek ezinbesteko garrantzia zuen, «konfiantza»k eta «uste ona»k hainbeste balio zuten gizarterlazio sare batean (Alvarez, 2003: 253-278):

Mi mas estimado Padre y Señor: Rattificandome en mis anteriores servira esta de que su dibina Magestad me afaborecido con algunas combeniencias temporales, y *que nezesito alguna persona de confianza que me alibie* el mi giro y comercio, y considerando que ninguno mejor que mi hermano Anselmo desempeñara ha quien yo ponga a su cuidado, y *que este se hallara bastantte mentte Ynstruido en leer*,

7. Diego de Ahedoren testamentuak ikastegia eta alboko parrokiaren birmoldaketa egiteko dirua ematen zuen. Egun oraindik «Gramatikoen etxea» deitzen zaio eraikuntza hau egon zen tokiari.

8. Esaterako, Karrantza udalerritik atera gabe, 1628an San Ciprián parrokian maisu bati ordaintzeko *obra pia* bat fundatu zuen Fernando de Matienzo y Ahedok, artean Sizilian inkisidorea zenak. 1777an, Mateo José de Negretek, zeina Madrilera erregidorea izatera heldu baitzen, testamentuaren bidez Ranero hirian beste eskola bat fundarazi zuen. Pedro Celestino Negrete, Mexikoko independentzian parte hartu eta gero Bordelen exiliatua bizi izan zen, eta handik 1845ean San Esteban bere jaioterriari hango eskola eraikitzeko dirua utzi zion (López, 1975: 98 eta 130. Karrantzako Udal Agiritegia, *Fundación Sainz Indo* atala, SI-26, "Escritura de transmisión de las fincas, capitales y réditos y demás efectos pertenecientes a las escuelas que a favor del concejo de San Esteban fundó el Excmo. Sr. D. Pedro Celestino Negrete, año 1846").

9. Galiziako adibideaz, ikusi Núñez, 1998.

escribir, y contar, estimare a Vmd. que a la mayor brevedad me lo ymbie con destino a mi cassa y direcion sin aviarle demas Ropas que las que necesitte para su embarque que despues aqui se le probeera de las que ubiese menester para su ornato y de zenzia, prebiniendo a Vmd. que primero es nezesario conseguir la Lizenzia del consejo para embarcarse en uno de los Puertos de Santander, Bilbao o Portugalette precediendo al intentto su ynformazion de nobleza, y libertad (...) ¹⁰.

Testuinguru honetan, migratzaileek jaioterrietan eskolak eta irakasguneak sortzeko ahaleginek beste garrantzi bat hartzen zuten. *Amerikanoek* ez zuten bakarrik alboan beren odoleko eta konfiantza osoko laguntzaile bat behar; laguntzaile horrek baldintza hauek bete behar zituen: «Hallarse “ynstruido en la Escuela”¹¹, es decir, haber acreditado el dominio de lectura y escritura, por una parte, y de las “cuatro reglas” de cálculo y contabilidad por otra» (Alvarez, 2003). Eskola haiek, beraz, migratzaile berriak prestatzeko gunee bilakatu ziren behin baino gehiagotan.

3.- Batzuetan, inizatiba hauek ez zituzten bakarrik Euskal Herrian geratu zirenek gozatu. Dagoeneko XVIII. mendean beste ohitura bat ere jaio zen, batez ere XIX. eta XX. mendeetan garraioen bilakaerak ekarri zituen erraztasunekin finkatu eta zabaldu zena: *Amerikako familia euskaldunetako semeak Euskal Herriko ikastetxeetara ikastera bidaltzea*, alegia. Esan gabe doa, praktika hau ezin zezakeela edonork obratu; oinarria denborarekin hedatuz joan bazen ere, batez ere goi-mailako eta maila ertaineko gizarte-taldeetako familiei erreserbatu geratzen zelako. Joera honen lehen aztarnak Euskal Herriko Adiskideen Elkarteak 1776an Bergaran sortu zuen mintegiarekin ikusi ziren, bertara hiru probintzietako kaparedunen semeekin batera, kanpoko beste familia euskaldun batzuek ere ikasleak bidali zituztelako (Totoricaguena, 2003b: 79). Paralelotasun handia badago, esaterako, mende eta erdi geroago Lekaroz herrian kaputxinoek ireki eta zuzendu zuten ikastetxe ospetsuarekin: horra ere, emigrazioaren seme asko etorri baitziren, ikasketak egiten zituzten bitartean euskal inguruan hezteko. Egiaz, horren atzean ez zegoen bakarrik kalitate goreneko hezkuntza bat lortzeko asmoa, hezkuntza horren euskaltasuna ere aintzat hartzen zen erabaki horretan.

4.- Baina euskal seneko hezkuntza bat hartzeko ez zen erabat beharrezkoa Euskal Herriratzea, horrek suposatzen zituen gastu eta arazoekin. Horrela, beraz, azkenengo talde batean, *euskal kolektibitateak Amerikan bertan bere ikastetxeak sortu eta babestu zituen*, hurrengo atalean aztertu eta sailkatuko ditugunak.

10. Indietako Artxibategi Orokorra (IAO), Sevilla, Buenos Aires, 571, Anselmo de Bermegillo Zubiagaren emigrazio-baimena. Catamarca hiritik José Antonio de Bermegillo bere anaiak bidaltzen duen gutuna, 1802-I-8. Azpimarratzea gurea da.

11. Bizkaiko Foru Artxibategia, Bilbo, Udalerriak, *Gordexola*, 34/1. Francisco de Aguirre-ren kaparedun txostena. Haren osabak Buenos Airesetik hara erakartzeko bidali zion gutunaren zatia da (1802-XII-26).

2. Euskal ikastetxeak Amerikan

2.1. Lehen adibideak

2.1.1. Aro koloniala: Mexikoko Colegio de las Vizcaínas

Amerikan, beraz —eta hauxe da lehen puntu azpimarragarria, ez baitira aski ezagunak izan gure artean—, euskal ikastetxeak egon dira, eta egun ere horietako batzuek oraindik bizirik eta aktibitate irekian diraute.

Aipatu ditugun gainerako iniziatibak bezala, aro kolonialean sortu ziren lehenengo euskal ikastetxe amerikarrak. Artean Amerika oraindik potentzia europarren kolonia zen hein handi batean, eta europarrek menderatzen ez zuten lurraldea bertoko biztanle indigenen esku zegoen. Hegoaldeko euskal herritarrek, Espainiako koroaren gainerako lurraldeetako jatorrikoek bezala, inolako eragozpenik gabe Amerikaratzeko aukera edukitzeaz gain, itsasoaz bestaldeko gizarteetan botere eta eragin handiko postuetara igotzeko parada ere bazuten. Amerika espainiarreko gizarte koloniala egituratzen zuen indiar/zuri eta kreol/europar ardatz bikoitzaz gain, Iberiar penintsulatik joandakoen artean jatorri etniko edo erregionalak ere bere esparrua lortu zuen. Horretan, euskal herritarrek oso goizetik nabarmendu ziren elkarri laguntzeko joera erakusten. XVII. mendean modu instituzionalean gauzatuko zen euskal nortasunaren presentzia, Amerikako ia eskualde guztietan fundatu ziren «Arantzazuko Ama»ren kofradiekin. Bertan, erlijio-ekin-tzekin batera, erkideekiko ongintza eta euskal *izaeraren* goraiipamena egiten ziren.

Kofradia haietako bat, indartsuena ez esatearren, Amerikako lehen euskal ikastetxearen sorreraren atzean dago. Ikastetxe hau Mexiko hiriko Loiolako San Inazioko Erret Ikastetxea da, nahiz eta *Colegio de las Vizcaínas* izenarekin ezagunagoa den. Erdarazko izen herritar horrek bere jitearen bi ezaugarri nagusiak islatzen dizkigu: euskal neskontzat sortu zela alegia. 1732an eman ziren ikastetxe honen lehendabiziko pausoak, eta zorionez Amerikako euskal ikastetxe guztietatik ikertuena dela ezin da ukatu (Garritz, 2000; Carrea, 1967; Foz y Foz, 1981; Luque, 1996; Luque, 1995; Muriel, 1987; Ríus de la Pola eta Ramos y Ramos, 1997; Tellechea, 1990). Urte hartan, Mexiko hiriko Arantzazuko kofradiako hiru kide nagusik, Manuel Aldakok, Ambrosio de Meabek eta Frantzisko Etxebestek, ikastetxe honen egitasmoa landu eta, ondu ostean, kofradiako agintariek onartzea lortu zuten. Ezagunak dira ere, ireki baino lehen pairatu behar izan zituen oztopoak, ikastetxea erregearen babespean —eta Elizarenetik at— kokatzeko ahaleginak zirela eta. Azkenean, 1767ko irailaren 9an ateak ireki zituen, euskal sustraietako neska, dontzeila eta alarguntsa behartsuei babesa eta irakaskuntza emateko, horrela beren zintotasunari eta ohitura onei eutsi ziezaieten —eta bide batez euskal kolektibitate osoaren izen ona gorde zedin—.

Dakigunez, aro koloniala amaitu arte ez da oraindik beste ikastetxe antzekorik ediren Amerikan. *Vizcaínas*-ekoak, gainera, arazo larriak pasatu behar izan zituen independentziaren ostean. Hasiara batean, erret babesa galtzarekin batera, izena eraldatu zitzaion, «Colegio Nacional» bihurtu zelarik. Mexiko hondatu duten gerra eta iraultzetan ere beste oztopo batzuk agertu zitzaizkion, baina guztietatik bizirik atera da, Mexikoko instituziorik zaharrenetariko bat izanik.

2.1.2. XIX. mendeko emigrazio berriaren harian: Buenos Aireseko San José eta Montevideoko Inmaculada ikastetxeak

Independentziarekin, beraz, euskaldunen emigrazioek aldaketak ezagutu zituzten. Ordurako Amerikara heltzen zirenak, salbuespenak salbuespen, ez ziren gorputz politiko bakar eta bateratu batean zehar ibiltzen. Handik aurrera euskalduna Amerikan atzerritarra izango zen. Horri beste berrikuntza bat ere erantsi behar zaio: Ipar Euskal Herriko emigrazio-joera handi baten hasiera. Argentina, Uruguai, neurri txikiago batean Txile, Kuba Kariben, eta geroxeago Estatu Batuak, emigrazio horren helmuga nagusiak bilakatu ziren. Migrazio horren neurri gero eta handiagoak berehala bereganatu zuen Euskal Herriko indar eta iritzi publikoaren arreta, besteak beste, Elizarena. Emigrazioaren aurrean, oro har, bertsolariaren berbetan «apezen kontseiluak bethi kontrario» (Garzia eta Urkizu, 1991: 333) ziren.

Elizarentzat, balizko alde on guztien gaintik, emigrazioak bazuen atal ilun eta beldurgarri bat. *Emigratzen zuen orok fedea galtzen omen zuen Ameriketan*. Guztien ahotan zegoen, eta guztiek sinetsi, apaizek zein apezpikuek. Ideia hau, Elizaren portaeraren ardatz nagusia zuzenduko duena, ez zen bakarrik Euskal Herrian ezagutu, ezta hemen piztu ere. Aldi berean, estraineko migrazio masiboak bizitzen ari ziren herrietan osagarri berdinetako eritziak plazaratzean ari ziren bertoko Elizak.

(..) Emigrazioak —hots, etxea uzteko eta toki urrun batera bizitzera joateko *egite* berak— fedearen oinarriak kolokan jartzeko arrisku nahikoa bazuen. Deserroteak ekarritako kaltea baino ez zen fedearen galtzea, ulerbide honetan. (..) Onena, beraz, etxean gelditzea zen, zeren eta «hortantxe da aurkitzen / Zeruko bidea». Gipuzkoatik, Iruñeko apezpikuak antzeko arrazonamendua botatzen zuen 1852an (Alvarez, 1998: 391).

Horren aurrean, 1850eko hamarkadatik aurrera, Ipar Euskal Herriko Elizaren elizbarrutiko agintariek Amerikara euskal etorkinentzako misiolariak bidaltzeko erabakia hartu zuten, bertan (Argentinan eta Uruguain, batik bat) euskaldunen aldeko eliza-praktikak eta instituzioak sor zituzten. Horrela, 1852tik aurrera Baionako apezpikuak bidalita, Migel Garikoitz apaiz baxenabartarrak sortutako Betharrameko Jesusen Bihotz Sakratuko kongregazioko lehen misiolariak Buenos Airesera heldu zirenetik, Hego Amerikako eskualde haietan euskaldunen «laguntza espiritualaz» arduratu ziren: euskaraz misioak, predikatuak eta sakramentuak banatuz, euskaldunentzako kaperak irekiz (Buenos Airesen eta Montevideon *iglesia de los vascos* bana ireki zuten) eta, bilakaera horren ondorio zuzenez, ikastetxeren bat ere fundatuz (Alvarez, 1996). Horrela, aita betarramistek (Argentinan eta Uruguain *padres bayoneses* edo *padres vascos* izenekin ezagunak [Rodríguez, 1994: 127-139 eta D'agostino, 2000: 337-351]) 1858an beren lehen ikastetxea ireki zuten Amerikan: Buenos Aireseko San José ikastetxea alegia:

A principios de 1858, el P. Barbé encaró seriamente la fundación de un Colegio ya proyectado en Betharram por el Padre Garicoits, a cuyo efecto había agregado al cuerpo de misioneros el joven estudiante Magendie y el hermano Joannes Aróstegui, maestro primario que había dirigido la escuela de Asson. (..)

Por su gran devoción a N^a Señora de Betharram, deseaba un local próximo a una iglesia de la Virgen, y recorrió con ese objeto algunos barrios de la ciudad, en compañía del joven Magendie. Finalmente en el barrio del Once y frente a la iglesia parroquial de Balvanera le agradó un modesto solar (...). Además de la proximidad de Balvanera que serviría de capilla a la nascente institución, varias razones motivaron la elección de ese local, entre otras la posibilidad de adquirir terreno en la manzana anexa a la iglesia para la construcción del edificio propio, y *la cercanía [de la plaza] del Once, parada terminal de los lecheros vascos, procedentes de Flores, cuyos hijos concurrirían fácilmente a la escuela* (Magendie, 1921; Sarthou, 1860: 29-31).

Fundazio honen protagonista izan zen Jean Magendie aitaren hitz horietatik, beraz, berehala kontura gaitetze euskaldunen familiei begira hartu zirela, ez bakarrik ikastetxe honen irekieraren erabakia bera, baizik eta baita horren kokapen geografikoa ere. Izan ere, urte haietan Once auzoa Buenos Aireseko aldiriko toki urrun bat besterik ez zen, bertan hiriaren amaiera baitzegoen. Hortik aurrera zelaiak zeuden, eta horietan euskal herritar askok esnea ekoizteko *tanboak* sortu zituzten, egunero hiriko merkatuak hornitu ahal izateko. Nonbait Once auzoak euskaldunentzat *auzo etniko* baten antza hartu zuen: bertan euskaldunak jabeak ziren dendak, tabernak, etabar metatzen ziren; inguru horretan ere eraikiko zen hamarkada batzuk geroago Plaza Euskara frontoi nagusia ere, urte askotan Buenos Aireseko euskal kirolaren eta kolektibitatearen bilgunea izan zena. Denek ezaguna zen, beraz, euskal herritarrentzat zuzenduriko edozein iniziatiba kokatzeko auzo hau egokiena zela¹².

Handik urte batzuetara, betarramisten kongregazioa Río de la Plata gurutzatu eta Montevideon ere finkatu zen, bertako euskal koloniarekin lanean ari zen apaiz baten erretreta behartua zela eta. Dominique Sarrote, Kansaseko trapisten monasterio bateko kidea zelarik, nagusiek Montevideora bidali zuten, han indiarrentzako misio berri bat eraikitze behar ziren sosak limosnen bidez eskuratzeko. Montevideon euskaldun asko «apaizik gabe» aurkitzean, kapera bat eraiki zien, Sortzez Garbiaren deiturapean. 1861ean Kansasera berriro deitua izan zenean, horren hutsunea betetzeko Buenos Aireseko betarramistei dei egin eta hauek enkargua onartu zuten (Daranatz, 1923: 153-156). Berehalaxe eliza hartan predikuak euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz hasi ziren. 1867an errefortzuak heldu zitzaizkienean, hiru apaiz berriekin, elizari erantsita ikastetxe bat sortzea erabaki zuen hango nagusia zen Jean-Baptiste Harbustan aitak. Urte hartako urriaren 1ean ireki zituen ateak Sortzez Garbiaren izena ere zeraman ikastetxeak, *Los Vascos* izengoitia hartuko zuenak.

Buenos Airesen zein Montevideon, aita betarramisten bi ikastetxe hauen hasierako ikasle-zerrendek euskal erroko mutil anitzen presentzia erakusten dute; baina horrek ez zuen esan nahi euskaldunek bakarrik sartzeko eskubidea zutenik. Azken finean, fundazio hauen atzean zegoena ez zen euskal elkarte bat, Eliza

12. Horrela deskribatzen du B. Sarthou-k (1860: 25.): «En torno a Buenos Aires, entre Flores y Luján, los vascos explotaron una amplia red de tambos y fueron, por muchas décadas, los clásicos proveedores de leche para la creciente ciudad. El “vasco lechero” esforzado y madrugador, con infaltable boina, vino a constituir un tipo popular que desafiaba lluvias y pantanos para servir puntualmente al cliente porteño. (...) Los niños vascos “nacidos a caballo” ya repartían leche a los diez años; luego armaban carreras en las plazas con grandes alaridos y menudas apuestas, antes de acudir al catecismo o al colegio...».

baizik. Amerikan, bestalde, Eliza katolikoak ez zuen apaizgorik sobera, independentzia garaitik aurrera Espainiatik koroaren finantzaketarekin misiolarien bidalketak etetea, arazo larriak izan zituen apaiz eta fidelen artean behar bezalako *ratio* egoki bati eusteko. Betarramistek, beste talde etniko batzuetako apaizek eta kongregazio erlijiosoek bezala, ez zuten inolako eragozpenik jasaten haien aberkideez *jaioterri zaharraren* ohituretan eta hizkuntzan arduratu nahi bazuten, baldin eta ardura hori eskusiboa eta baztertzalea ez bazen. Horrela ere adierazi zioten elkarri Baionako eta Buenos Aireseko apezpikuan, lehenengo euskal misiolarien bidalketa prestatzen ari zenean: «luxta propositum meum atque amplitudinis tuæ beneplacitum quinque jam laudatos missionarios præsbiteros quos viros apostolicos p[.] dixerim, ad te mitto; ut sub tua auctoritate atque jurisdictione, tum apud concives suos bascuenses ceu benearneses, tum apud indigenas oves tuas, bonum opus salutis animarum peragant»¹³.

2.2. Eredu baten jaiotza. Ikastetxe euskal-amerikarrak

Ikusi dugunez, beraz, XVIII. eta XIX. mendeetan antolatu ziren bi eredu hauek ezaugarri komun garrantzitsu bat bazuten. Ikastetxe hauei euskal izaera aitortzen zaie, euskal herritarrek beraiek sortuak eta zuzenduak izateagatik edota euskal herritarrei zuzendurik egoteagatik. Haien helburua ez zen euskal irakaskuntza bat eskaintzea —edukiei begira—, baizik eta euskaldunei irakaskuntzarako bidea erraztea. Kulturala baino areago helburua praktikoa zen: Amerikan bizi ziren euskal familiek beren seme-alabei gizartean gora egiten —edo behera ez egiten uzten— ahalbidetuko zien hezkuntzaz hornitzea, alegia. Hau dela eta, ikastetxe hauen irakaskuntza-curriculumetan ez dugu aurkituko euskaltasunaren —eta are gutxiago euskaltzaletasunaren— izpirik ere. Euskaldunei irakasteko tokia zen, baina ez *euskaldunez* irakasteko.

2.2.1. Hasierako saiakerak eta ereduaren definizioa

Edonola ere, horrek ez zituen desio guztiak asetzen, eta ezintasun hau areagotuz joan zen, XIX. mendearen azkenengo laurdenean Amerikako lehenengo euskal etxe modernoak agertu zirenean. Euskal etxe haiek, hasiera batean, helburuen mugagabetasunean antolatu ziren, baina, oro har, aisialdirako eta elkarri laguntzeko gune gisa ulertu zituzten bultzatzaileek. Horrek ez du esan nahi helburu horiek oso zehaztuta zeudenik, horrexegatik euskal etxe bakoitzaren bilakaerak ibilbide bana hartu ohi du. Baina hala ere, guztiak puntu batean bat zetozen: kanpoko kolektibitate hauen euskaltasunaren defentsan. Beste ezer baino lehen, elkarte hauen izaeraren ardatz nagusia *euskaltasunetik* igarotzen zen (Irigoyen, 1999).

Beste kolektibitate nazionalen eredia gertutik hartzen badugu —eta ziur aski euskal etxe hauen eragileek ere kontuan hartu zuten—, hiru dira elkarri laguntzeko jardueren artean errepikatuen eta hedatuena: fortunak ukitu ez dituenen babesa

13. «Nire asmoa betetzeko eta zure oneritziarekin, gizon apostolikoak dei ditzakegun aipatutako bost apaiz goraiatuak bidaltzen dizkizut; zure aginte eta jurisdizkiopean, arimen osasunen aldeko lan ona egin dezaten, bai haien herkide euskaldun eta biarnotarren artean, bai zure bertoko ardien artean». Baionako Elizbarrutiaren Artxibategia, *Correspondance de l'Eveque de Bayonne*, "Lettre de recommandation remise par Mgr. de Bay. aux S. missionaris partant pr. Montevideo le 29 aout 1856".

(zahar pobreentzako egokiak, Euskal Herrira itzuli nahi baina diru nahikorik ez zutenei doaneko txartelak ordaintzea, eta abar); gaixotasunaren aurreko babesa (esaterako, Argentinan hain usuak diren «eritetxe nazionalak»), eta azkenean ume eta gazteentzako hezkuntza (Frid de Silberstein, 1988: 266-287). Baina euskaldunek, italiarrek eta beste talde migratzaile askok ez bezala, ez zuten jaioterrian Amerikara eraman zezaketen eredurik; nonbait euskal hezkuntza bati hasiera eman nahi bazitzaion Amerikan, hutsetik hasi behar zuten.

Edonola ere, euskal eskolak sortzeko asmoak oso goiz agertu ziren Amerikako euskal kolektibitatean. 1922an *La Baskonia* aldizkarian onartu zenez, euskal ikastetxe bat sortzea «es una aspiración vieja, de muchos entusiastas coterraneos, que hace medio siglo actuaron en Montevideo: los Ordoñana, Umanan, Udabe, Aramendi, Sierra, Carrera, Artola, Hormaeche, Latorre y otros muchos que lucharon por que aquel pensamiento se llevara a cabo». 1882an, beraz, kokatu behar dugu Montevideoko euskal etxeak —arteana Laurak-Bat izena zeramanak— *Escuela Euskara* fundatzeko egin zuen ahalegina:

El proyecto de creación de una *Escuela Euskara* en Montevideo, emitido por los socios Sres. Artola y Errazquin, en nuestro apreciable colega *Laurak-Bat*, que vé la luz en la capital del Uruguay, ha sido perfectamente acogido, no sólo por la colonia bascongada allí residente, sino también por nobles y entusiastas orientales que, aprovechando la ocasión de ofrecer un nuevo testimonio de simpatía a nuestros hermanos, se ha apresurado á ofrecer generoso donativos con tal objeto¹⁴.

Ez zuen, hala ere, zorte handirik izan egitasmo honek, nahiz eta orduko prentsa euskal-urugaitarrean oihartzun handia lortu zuen. Jose A. Artola asmoaren bultzatzaile agertzen zaigu *Laurak Bat* aldizkariaren 126. zenbakian, eta bertan oso argi utzi zuen bere proiekturaren helburu nagusia: «Una escuela o cátedra bascongada en la que la juventud pueda aprender a leer y hablar en Bascuence» (Irigoyen, 1999: 172). Horren erantzunez beste kide batzuek goraipamenak bota zituzten, esaterako Frantzisko Errakin nafarrak, hurrengo zenbakian agertu zen moduan:

Yo, como hijo de Bascongados, soy uno de tantos que quisiera que la lengua y las buenas costumbres de los autores de mis días se perpetuasen en nuestros hijos, para de este modo cumplir con el sagrado deber de honrar la memoria de nuestros antecesores, contribuyendo a la vez a la unión y al engrandecimiento de la familia euskara (Irigoyen, 1999).

Eta ildo beretik batu zuen bere iritzia Domingo Ordoñanak, Uruguako euskal kolektibitateko itzal handiko pertsonaia berak, eta nazioko gizonik aberatsenen artekoak:

A estos propósitos si la nueva sociedad centro social que se ha instalado, quiere prestar la atención que se merece al pensamiento de la escuela vascongada por honor al sentimiento social que ha tomado por título, podría llegarse cuando menos a relaciones y acuerdos utilísimos al total de la comunidad vascongada¹⁵.

14. "Miscelánea", *Euskal Erria*, Donostia, VIII (1883), 547.

15. Irigoyen, 1999: 131 (1883-V-29).

Diru-falta izan zen, azkenean, ideia hau gauzatzen utzi ez zuen arazo bakarra. Baina hazia jarrita laga zuen, hurrengo egitasmoek jarraituko zuten bidea markatuz. Horrela, gero eta ahots gehiago agertu ziren Argentina eta Uruguai euskal kolektibitatean, bide honi berresteko eta benetako euskal hezkuntza emango luketen euskal ikastetxeak fundatzearen alde. Eta euskal hezkuntzaren kontzeptu honetan hiru ziren osagarri ezinbestekoak: euskara, Euskal Herriaren izaerari eta ohiturei dagozkien gaiak (batez ere historia eta geografia), eta erlijio-irizpideak¹⁶. Euskal irakaskuntza, Amerikan ezartzen bazen, bertan jaiotako belaunaldi berriak euskaltasunaren printzipioetako mugen barnean mantentzeko erabili behar zen:

No en todos los hogares baskos se da la importancia que debiera darse a nuestra lengua y a nuestras costumbres, y para subsanar tal indiferencia originada con frecuencia del desconocimiento de las cosas baskas, es que se impone la fundación de la Escuela Baska, que dirigida por personal competente se enseñaría todo lo que atañe al país basko, a los descendientes de los euskaros que no deben ignorar las peculiaridades de su raza, para honrarla, honrándose a sí mismos (Infanzón de Bill-ona, 1922: 93)

2.2.2. Argentinako Euskal Echea¹⁷

Edonola ere, XX. mendera arte itxaron behar izan zuten saiakera haiek guztiak; eta ez Uruguai eredu honen lehen ikastetxearen jaiolekua, alboko nazioa baizik: Buenos Aireseko *Euskal Echea*.

Asmo honen hasierako urratsak 1895 inguruan eman ziren, Buenos Aireseko euskal kolektibitatean barne-mugimendu asko ere bizitzen ari zirenean. Ordurako euskal instituzio bakarrari (Laurak-Bat euskal etxeari) beste bi erantsi zitzaizkion urte berean: *Centre Basque-Français* batetik, Iparraldeko euskal herritarrek Laurak-Bat-era sartzeko zituzten oztopoak ezin gainditzean; eta *Centro Navarro*, euskaltasunaren definiziotik at kokatzen ziren nafarrentzat. Horrekin batera, Argentinako euskal erakundeek porrota erakutsia zuten beren helburuetako batean, elkarri babesteko eta elkarri laguntzeko alegia. Horri guztiari aurre egiteko, talde eragile bategen asmo bikoitza agerrarazi zuen: elkarri laguntzeko erakunde berri bat sortzea, zeinean euskal herritar guztiak, diferentziarik gabe eta muga ororen gaineratik, parte har baitzezaketen. Horrela, 1900eko apirilaren 1ean formalki osatu zen Euskal Echea, eta akzio-salmenta baten bidez dirua biltzeari ekingo zion berehala, estatutuek behartuta eraiki nahi zituzten ikastetxeak eta zaharren egoitza ordaindu ahal izateko:

Primero: Que encuentran de conveniencia general para la representación moral de la colectividad éuskara radicada en esta República, la fundación de una institución que, estimando a todos los vascongados y sus hijos en el concepto legal de

16. Euskarari ematen zaion garrantzia oso azpimarragarria da, batez ere orduko urte haietan Euskal Herrian bertan euskara —ikaskagi bezala— eta euskaraz —komunikabide-tresna bezala— irakastea oraindik fantasiaren munduko gauza zenean. Izan ere, Montevideon hezkuntzarako euskara bateratu bat erabiltzeko beharra ere azpimarratu zen: Ordoñanak bere gutunean funtzio honetarako proposatzen du «el purísimo vascuence arriñonado, entre Cegama, Ataun y Lizarza dirigiéndose al litoral»; bestela «el euskera se pierde y corrompe, los vascongados franceses, los vizcaínos, los alaveses y alguna parte de los navarros hablan sus euskeras modollo que difícilmente podemos entender» (Irigoyen, 1999: 172).


17. Atal hau egiteko, gure lan hau erabili dugu oinarritzat: Iriani eta Alvarez, 2003.

miembros de una misma familia, vincule sus relaciones de confraternidad cultivando los legendarios atributos y virtudes que en todo tiempo han caracterizado a este pueblo y llenando entre sus necesidades los deberes que esta confraternidad solidaria impone.

Segundo: Que para esto lo estima útil y aun de necesidad, además de la asistencia domiciliaria para los pobres, la erección de asilos, colegios para huérfanos, casa de misericordia para los desvalidos y capilla o iglesia para sus servicios religiosos, lo mismo que creen de conveniencia general, la creación de centros de enseñanza para sus hijos, en los que a la vez de difundirse las bases que constituyen la modalidad eúskara, se consoliden los sagrados vínculos de la sangre¹⁸.

Hemen, beraz, bi helburuek elkarri eskua ematen zioten. Euskaltasunaren aldarrikapena eta horren mantentze eta zabaltzearen aldeko asmo irmoarekin batera, Euskal Echeak emango zituen zerbitzuak ere praktikotasunaren ildotik zebiltzan. Euskal Echeko ikastetxeak fronte biko hezkuntza planteatzen zuen: euskal nortasunari eusteko baina aldi berean euskaldunen ondorengoak Argentinan ahalik eta hobeto integratzeko.

Horrela, 1904an neskontzako ikastetxea ireki zen, Buenos Aires hirian, Ipar Euskal Herritik Angeluko Mariaren Zerbitzarien kongregazioko erlijiosoek ekarrita. Eta handik gutxira mutilen ikastetxearen ateak zabalduko ziren Llavallol herrian (Buenos Airesetik berrogeiren bat kilometrora), Nafarroako aita kaputxinoek zuzenduta.



1. irudia. Euskal Echeko mutilen eskolako oroit-liburua, 1940.

18. *Estatuto y reglamentos de la Euskal-Echea aprobados en las Asambleas de 17 y 24 de Abril de 1904*, Buenos Aires, Tip. La Baskonia, 1904.

Hasiera batean kaputxinoek ezartzen duten hezkuntza-curriculumak arreta berezia eskatzen du, bertan gauzatzen baitziren Euskal Echearen bultzatzaileek ikastetxe honen helburuen inguruan zituzten asmoak eta esperantzak. Hasteko, Argentinako hezkuntza-sistema ofizialari uko egin eta «euskal sena»rekin lotuago zegoen beste bat antolatu zen. Alde batetik, euskaltasunaren inguruko ikasgaiak zeuden: euskara, euskal historia eta geografia, eta folklorea. Bestetik, ikasgai praktikokoak baina euskaldunek Argentinan zuten lan-aukeretara mugatuak. Horrela bi lerro ireki ziren: nekazari-ikasketak batetik —eta hor dugu, besteak beste, ikastetxe hau hiritik kanpo kokatzearen arrazoietako bat—, eta merkataritza-ikasketak bestetik. Laburbilduz, estantziak eta dendak.

Sistema honek luzaroan ez bazuen iraun ere —horren ordez Argentinako bigarren hezkuntza homologatua ezarri zen—, hala ere ikastetxeak euskal «ukitua» eman zion beti bertan emaniko hezkuntzari. Horren adibidea, esaterako, urteetan mantendu ziren euskal hizkuntza eta geografia-historiako lehiaketak, urtean zehar gai horietaz lanik onena egiten zuten ikasleak saritzeko.



2. irudia. Euskal Echeko mutilen eskolako leihaketa (Oroit-liburua, 1921).

2.2.3. Ereduaren hedakuntza: Montevideoko Euskal Erria ikastetxearen porrota

Euskal Echearen arrakastak berehalako oihartzunak lortu zituen. Euskal Herrian ez ezik —«Dios quiera (..) que llegue un día en que podamos enviarle desde aquí la reseña de un obra análoga» (M. de L., 1925), erantzuten zion Bilbotik *Euzkadi* egunkariak Euskal Echearen zenbait ekintzaren berri ematen zuen gutun bati—, Amerikako beste kolektibitate batzuek ere inbidiaz so egiten zioten. Eta horien artean, gertuen zegoenak, Uruguaiakoak. Bertan, 1898an euskal etxea *krak* ekonomikoak jota desagertu zenetik, ez zegoen inolako euskal instituziorik,

harik eta 1911-1912an, fundazio-prozesu bakar batean, Montevideo hirian euskal etxe bi jaio ziren arte¹⁹.

Euskal etxe haietako bat, Euskal Erria izenekoa, hasiera-hasieratik euskal ikastetxe baten egitasmoaren atzetik ibili zen. Izan ere, 1915eko abuztuan ordezkari-tza bat Argentinako Euskal Echera bisita bat egitera bidali zuen elkarteak, eta handik gutxira «Comisión de Beneficencia e Instrucción» bat sortu zuen zuzendaritza-batzordeak (Parrabere, 1952). Horrela lehen kontaktuak egin zituen, Angeluko Mariaren Zerbitzarien ordenako «hezkuntzarako erlijiosoak» Euskal Herritik eramaten saiatzeko; hala ere, ez zen garai batere ona, Europako gerra zela eta, eta horregatik «las hermanas baskas [*que iban a hacerse cargo del establecimiento de enseñanza*] no podrá contarse por el momento con su concurso»²⁰. Azkenean 1918an negoziazioak bertan behera utzi ziren, eta Hego Euskal Herriari begirada zuzendurik, beste kongregazio baten bila aritu ziren. Azkenean San Joseren Alabekin (*Hijas de San José*) harremanetan jarri ziren. Jatorriz fundazio katalana zen, baina ordurako Euskal Herrian oso hedaturik zegoen kongregazio hori. Azken elkarrizketetan kontratua adostu ostean, oniritzia eman eta ikastetxea antolatzeari ekin zioten.

Buenos Aireseko eredia bezala, ikastetxe bikoitza zen, mutilentzat eta nesken-tzat, eta azken horiek izan ziren bidea irekiko zutenak. 1923an zehar ikastetxerako eraikuntzaren erosketaz eta txukunketaz lan egin zen, eta azkenean 1925eko otsailaren 28an lehen ikasturtearen hasiera ospatu zen, Euskal Echeko irakaslea zen Pacifico de Iragui aita kaputxinoaren hitzaldiarekin:

Euskal Erria-ko Lendakari jaunak:

Andreak:

Gizonak:

Bispiru itz euskera gure asaben ele goxoan entzuteko gogo bizia agerrtu omenu Aragone zuen Gotzai yaun agurrgarriak. Edta [*sic*] zuek, Lendakari jaunak, ain goitik atera dan nai bikain ori ikusiaz, pozez beterik nigana yo duzute. Nik berriz, mintzalari motela ziñez izan da ere, uka ezin, nere errikideen eskari garbi oni bayetz esan bearr naita-ez. Bizpiru itz baño askoz geyago, eztira izango noski, aunitz dira-ta zoritxarrez euskera ulertzen eztutenak.

Biotza xamurr-xamurrurikan, nere begiai negarra zeriela, ikusi dut gaurr goizeko yai zoragarria. Euskaldunak, poztu zaitezte: badaukazue zuen Ikastetxe berria. Batez ere, lan hontan zuen gogo, zuen biotza, zuen indarr osoa ipiñi dezutenok, idiki orain poz eta alaitasunari norbere biotzaren atariak zabal-zabalik: azkenik iritxi duzute amairu urrtetatik onaraiño izan dan zuen amets gozoa. Iya ezta amets utsa, egizko gauza baizik; gure begiyak ikusten, gure biotzak sentitzen ari bai dira²¹.

Usteak, hala ere, erdia ustel. Hiru urtetan besterik ez zuen iraun Euskal Erria ikastetxeak; azkenean euskal etxearen eta kongregazioaren arteko ika-mikak zirela eta, 1927ko abenduan ikastetxea itxi zen betiko. Gure lan honen helburuak gaintitzen ditu historia horren azterketak. Edonola ere, Euskal Errian ematen zen

19. Honen inguruan, ikusi zenbaki honetan bertan Eneko Sanz Goikoetxearen artikulua.

20. "Los baskos en el Uruguay", *La Baskonia*, **XXIV**, 847 (1917-IV-10), Buenos Aires, 300.

21. "Los vascos en Montevideo", *Nación Vasca*, **17** (1925-III-30), Buenos Aires, 7. Eneko Sanz Goikoetxea ikertzaile eta EHUko historia irakasleari eskertu nahi diot erreferentzia hau.



3. irudia. Euskal Erria ikastetxeko ikasleak instituzio berak Malvin auzoan zituen instalazioetara txango bat egiten (Iturria: *Euskal Erria. Instituto de Enseñanza dirigido por las Religiosas Hijas de San José* albuma, 1925).

hezkuntza-eredua Euskal Echekoaren oso antzekoa zela esan dezakegu. Hemen ere, euskal irakasgaiak eta batez ere —agian Argentinan baino gehiago— euskarari onartzen zitzaion garrantzia oso nabarmenak ziren. Izan ere, San Jose-ren Alabek euskal etxearekin sinatu zuten akordioan, euskarazko eskolak emateko beharra azpimarratzen zen, lehendabiziko azterketa publikoetan adierazi zen moduan:

(..) era la primera vez que en el Uruguay se presentaban ante un tribunal examinador alumnos dispuestos a rendir examen del sabio idioma baskongado.

En dicho momento y muy oportunamente el entusiasta baskófilo don Regino Galdós exhortó a la concurrencia a ponerse en pie, saludando en esta forma a los jóvenes alumnos que, llenos de entusiasmo, se presentaban a rendir examen de la lengua euskara, siendo ellos el más alto exponente de su tierno amor al país basko. Fué realmente aquél un momento solemne en que el público de pie aclamaba a los pequeños examinandos.

(..) Es de esperar, que los compatriotas del Uruguay, en virtud del satisfactorio resultado alcanzado en los referidos exámenes, mandarán a sus hijos con preferencia al Instituto del enseñanza de «Euskal Erria», donde además de adquirir una perfecta educación general, pueden aprender, —y esto es de una importancia espiritual enorme— el idioma de la estirpe, que para un hijo de baskos, constituirá en lo sucesivo un timbre de honor.

Los baskos, acostumbramos generalmente, por uno de esos absurdos inconcebibles, dar preferencia a lo ajeno, aunque lo propio sea mejor, y tan erróneo criterio debería modificarse, como es el caso presente, tratándose del colegio referido, donde los niños pueden sentirse orgullosos, hablando el idioma de su raza, en muchos casos mejor que sus propios padres²².

2.3. Euskal Herritik etorritako eredu: ikastolak

Eredu honen iraunaldia zehazten zaila bada ere, ziur asko bi aldaketa-prozesu nagusiren artean kokatu beharko genuke: alde batetik, euskal emigrazioak bizi izan zituen aldaketak (emigrazio ekonomikoaren desagertzea eta Gerra Zibilaren osteko erbestealdia), eta Euskal Herrian bertan euskal hezkuntzaren munduan gertatu zirenak (batez ere ikastolen agerpenarekin). Amerikako euskaldunek, ordurako, ez zuten beren eredurik sortu behar, Euskal Herrikoa inportatu zezaketelako.

Hau dela eta, 1940tik aurrera fundatu edo fundatzen saiatu ziren euskal ikastetxe amerikarrak, Euskal Herrian ikastolen mugimendua gertutik ezagutzen zuten pertsonak bultzatu zituzten. Ikastola hitzaren erabilera ere oso esanguratsua da bilakaera horren adierazle bezala. Ez da harrizkoa ere, batez ere erbeste aber-tzaleko sektoreak edo emigrazio-talderik euskaltzaleenak oso eraginkorrak izatea Amerikan ikastolak sortzen. Hala nola Caracaseko ikastola, egun zaharrena duguna —Argentinako Euskal Echea albora utzita—, 1946an eta 1957an (Alvarez, 1994: 256-290) saiakera bana egin ostean 1962an jaio zen²³, eta Estatu Batuetan Boiseko ikastola, 1990ean hiri horretako euskal etxeko hainbat kidek sortua

2004an, Euskal Echea bere mendeurrena betetzen ari denean, Amerikako euskal hezkuntza ez da oraindik, beraz, iraganeko kontua.

Bibliografia

- Alvarez Gila, O. (1994): "El intento de fundación de los franciscanos para la atención de la colonia vasca de Caracas (1956-1957): el doble lenguaje", *Cuadernos de Sección de Eusko Ikaskuntza. Historia-Geografía*, **22**, Donostia, 256-290.
- , (1996): *El aporte europeo a la Iglesia en el Río de la Plata: la presencia religiosa vasca (1835-1965)* [doktore-tesia], Euskal Herriko Unibertsitatea.
- , (1998): "Urruñako 1853ko Euskal Jaiak, Ameriketarako euskal emigrazioa eta Eliza", *Antoine d'Abbadie. 1897-1997. Congès International. Ezohiko Kongresua. Hendaye-Sare, 1997*, Eusko Ikaskuntza – Euskaltzaindia, Donostia.
- , (2003): "Reflexiones sobre la racionalidad de la emigración y el aprendizaje del 'oficio' de emigrante: País Vasco, 1750-1820", in P. Latasa (koord.), *Reformismo y sociedad en la América borbónica. In memoriam Ronald Escobedo*, EUNSA, Iruñea.

22. "Los baskos en el Uruguay. Instituto 'Euskal Erría' de Montevideo", *La Baskonia*, **XXXII**, 1161 (1925-XII-30), Buenos Aires, 141.

23. Informazio hau Xabier Irujori eskertu behar diot. 2004ko apirilaren 27ko gutunean, hauxe dio: «1962an edo 1963an ireki zituen lehenengo aldiz ateak eta 1975 arte egon zen martxan, nagusiki gurea bezalako hainbat eta hainbat familien itzulerak agortu zituen gelatxoak. 1962an baino lehen saiakera soilak egon ziren, ez zen, nik dakidanez behintzat, ikastola bat irekita eta martxan».

- , (?): “De «América y los vascos» a la «octava provincia». 20 años de historiografía sobre a emigración y presencia vasca en las Américas (siglos XIX-XX)”, *Vasconia*, Eusko Ikaskuntza, Donostia [moldiztegian].
- Aramburu Zudaire, J. M. (2002): “La emigración vasca a América en la Edad Moderna. Balance historiográfico”, in O. Alvarez Gila eta A. Angulo Morales (arg.), *Las migraciones vascas en perspectiva histórica (siglos XVI-XX)*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Arrieta, A. M. (1992): *La emigración alavesa a América en el siglo XIX*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- Auza, G. J. (2004): “Un futuro vasco de diversidad cultural”, *Euskonews&Media*, **237**, (2004/01/09-16).
- Carrea Stampa, M. (1967): “El Colegio de las Vizcaínas, primera escuela laica del continente americano (1767-1967)”, *Memorias de la Academia Mexicana de la Historia*, **XXVI**, 4 (1967), Mexiko.
- D’Agostino, Olga M. García de (2000): “Apostolado misionero y docente de los padres bayoneses en Buenos Aires”, *Archivum*, **XIX**, Buenos Aires, 337-351.
- Daranatz, J-B. (1923): “Un trapiste basque. Dominique Sarrote”, *Gure Herria*, **9**, Baiona, 153-156.
- Foz y Foz, P. (1981): *La revolución pedagógica en Nueva España (1754-1820)*, Instituto Fernando González de Oviedo, Madril.
- Frid de Silberstein, C. L. (1988): “Educación e identidad. Un análisis del caso italiano en la provincia de Santa Fe (1880-1920)”, in F. J. Devoto eta eta G. Rosoli (arg.), *L’Italia nella società argentina*, Centro Studi Emigrazione, Roma, 266-287.
- Garritz, A. (2000): “Colegio de las Vizcaínas en México”, *Euskonews&Media*, Eusko Ikaskuntza, **72**, (2000/03/24-31).
- Garzia, J. eta Urkizu, P. (1991): “Bertso berri batzuek emanik herrian”, *Bertsolaritzaren Historia. Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako bertso eta kantak*, I: Anonimoak, Donostia.
- Hinshaw, R. (arg.) (1979): “Basque Immigrants: Contrasting Patterns of Adaptation in Argentina and the American West”, *Currents in Anthropology: Essays in Honor of Sol Tax*, Mouton Publishers, New York.
- Infanzón de Bill-Ona (1922): “Los baskos en el Uruguay. Comentarios”, *La Baskonia*, **XXX**, **1050** (1922-IX-30), Buenos Aires, 93.
- Iriani Zalakain, M. eta Alvarez Gila, O. (2003): *Euskal Echea. La génesis de un sueño (1899-1950). Llavallol*, Urazandi bilduma, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz,
- Irigoyen Artetxe, A. (1999): *Laurak-bat Montevideo. 1876-1898. Primera euskal etxea del mundo*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- López Gil, M. (1975): *Valle de Carranza*, Bilbo.
- Luque Alcaide, E. (1995): *La Cofradía de Aránzazu de México (1681-1799)*, Eunate, Iruñea.
- , (1996): “Asociacionismo vasco en la Nueva España: modelo étnico cultural”, in A. Garritz (koor.), *Los vascos en las regiones de México. Siglos XVI a XX*, II. tomoa, UNAM, Mexiko, 67-86.
- M. de L. (1925): “Vascos de allá y vascos de acá”, *Euzkadí*, **VIII-1**, Bilbo.
- Magendie, J. S.C.J. (1921): “Fundación del Colegio San José”, *F.V.D.*, Buenos Aires.
- Muriel, J. (koord.) (1987): *Los vascos en México y su Colegio de las Vizcaínas*, UNAM, Mexiko.
- Núñez Seixas, X. M. (1998): *Emigrantes, caciques e indios. O influxo sociopolítico da emigración transoceánica en Galicia (1900-1930)*, Edicións Xerais, Vigo.
- Parrabere, A. P. (1952): *Para la historia de “Euskal Erria”*, *Euskal Erria*, passim, Montevideo.
- Ríos De La Pola, M. eta Ramos y Ramos, P. (1997): “Una institución vasca en México a través de los siglos. El Colegio de las Vizcaínas”, in A. Garritz (koor.), *Los vascos en las regiones de México. Siglos XVI a XX*, III. tomoa, UNAM, Mexiko, 165-174.

- Rodríguez Villamil, V. M. (1994): "Los bayoneses en en Argentina", in N. T. Auza (arg.), *Iglesia e Inmigración en la Argentina II*, CEMLA, Buenos Aires, 127-139.
- Sarthou, B. (1860): *Historia centenaria del Colegio San José de Buenos Aires (1858-1958)*, Talleres Gráficos Lombardini y Cía., Buenos Aires.
- Tellechea Idígoras, J. I. (1990): "El Colegio de las Vizcaínas de la ciudad de México", in I. Arana Pérez (arg.), *Los Vascos y América*, Espasa-Calpe/Argantonio. Madril, 214-221.
- Toticaguena, G. (2003a): "Ethnic Industries for Migrants: Basque Sheepherding in American West", *Euskonews&Media*, **212**, (2003/05-30/06-6).
- , (2003b): *Diáspora vasca comparada*, Urazandi bilduma, Eusko Jaurlaritz, Gasteiz.

